



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko urriaren 1ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko urriaren lehenean, arratseko zortzietan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, INARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : CASIRIAIN Elena.

Deialdiaren eguna : 2024ko irailaren 26

Afitxatze eguna : 2024ko irailaren 26

8. ERABAKIA: DATU PERTSONALEN GERIZARAKO DELEGATU BATEN IZENDATZEA

(9.1 nomenklatura)

Auzapezak jakinarazi/oroitarazi du, Frantziako Datu Pertsonalei Buruzko Araudi Nagusia 2018ko maiatzaren 25ean sartu zela indarrean, eta orduan Ortzaize herrian erabaki zutela Tokiko Kudeaketa Agentzia Publikoa izendatzea Datu Pertsonalen Gerizarako delegatu bezala, araudia betetzeko asmoz.

Auzapezak zehaztu du araudia betetzeko lehen fasean (datu pertsonal erroldatzea eta tratamendua, arau betetzeko laguntza, datu pertsonalen gerizarako gomendioak, bizi pribatuaren gaineko eraginen analisia egiteko aholkularitza) Tokiko Kudeaketa Agentzia Publikoarekin hitzarmena egin behar dela, eta hitzarmen horren proiektua aurkeztu du, Herri Biltzarrak horren izenpetzeko baimena eman diezaion.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik,

Kontuan izanik herriak ez duela Datu Pertsonalen Gerizarako Delegaturik, baina Agentziaren bazkide diren beste herriekin parteka dezakeela Datu Pertsonalen Gerizarako Delegazioa,

ERABAKI DU, Tokiko Kudeaketa Agentzia Publikoko Herri arteko Zerbitzu Digitalaren esku uztea Datu Pertsonalen Gerizarako Araudira egokitzeko lehen fasea, honako hitzarmenean idatzia denaren arabera.

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari hitzarmen horren izenpetzeko,

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 11

Balitzko boz kopurua : 11

ALDE : 11

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko urriaren 1an,
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/10/4an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/10/4an.